



## LAGAPEN HITZARMENA

### BILDU DIRA

Batetik, MARIA UBARRETXENA CID Arrasateko Alkateak, Arrasateko Udalaren izenean, helbidea duena Arrasateko Herriko Plaza, 1ean.

Bestetik, KEPA ORMAETXEA MILIKUA, NA zk. 72.561.920-W, ASKAPENAREN izenean (aurrerantzean LAGAPEN HARTZAILEA).

### ADIERAZTEN DUTE

Alde biek, esku hartzen dutelarik, kontratu hau egiteko beharreko ahalmena aitortzen diote elkarri. Adierazten dute Arrasateko Udala KULTURATE eraikinaren titularra dela eta abenduaren 15etik 17ra ITXIALDI bat egiteko, KULTURATE eraikina lagatzeko kontratu hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

### KLAUSULAK

1. LAGAPEN HARTZAILEAK instalazioen erabilera egokia egingo du: laga zaion jarduera egiteko baino ezingo ditu erabili. Debehatuta dago edozelako afekziorik egitea KULTURATEko instalazioei eta edozein aktuazio muntaia egiteko Arrasateko Udalaren baimena beharko du aurretik. Udal langilerik ez dagoenean instalazioak bere zainpean geratuko dira.
2. Klaustrora sartzeko eta irtetzeko lehentasunez Seber Altube Plazara doan sarrera erabili beharko da eta soilik larrialdietan edo ezinbestekoa denean egunez ate nagusia erabiliko da, eta, gauez, areto nagusiko atea, handik kalera zuzenean ematen duena.
3. SEGURTASUN ARAUAK
  - LAGAPEN HARTZAILEAK konpromisoa hartzen du KULTURATEko AUTOBABES PLANak ezarritako segurtasun baldintzak betetzeko.
  - Bereziki KULTURATE eraikinean larrialdietako irteerak eta suteen aurkako baliabideak ikusgarri eta erabilgarri egongo dira uneoro. Baita ezingo da gainditu instalazioen gehienezko edukiera. **Beraz, Klaustroan ezingo da sartu 312 pertsona baino gehiago egunez eta 50 pertsona gauez (20:30etatik aurrera).**
  - Kasu batean ere ez dago erabiltzerik edo garraiatzerik KULTURATE barruan gasolina azetilenorik, petroliorik edo beste edozein gai sukoirik, eta ezingo da erabili banakako berogailurik.
  - LAGAPEN HARTZAILEAK bere jarduerako partehartzaile guztiei jakinaraziko die KULTURATE barruan ezin dela erre.

### 4. AUTOBABES PLANA




- KULTURATEko langileak eraikinean daudenean (10:00-20:30) erabilitako gunean **zerbait gertatuz gero, HARRERAKO langileari ohartarazi beharko zaio**, azken honek lehen bai lehen larrialdi protokoloa aktiba dezan. Kasu guztietan LAGAPEN HARTZAILEA izango da berak antolatutako jardueraren partehartzaileen arduraduna. Berak antolatu beharko du bere taldea larrialdi kasuetan (ebakuazioa...)
- Arrasateko Udaleko langilerik egon ezean (20:30-10:00), LAGAPEN HARTZAILEAK kudeatu beharko du larrialdia, entregatutako Larrialdi fitxetan agertzen denari jarraituz. Fitxa hauek dokumentu honekin batera entregatzen dira.
- Azken kasu horretan, garrantzitsuena izango da abisua ematea kanpoko laguntzei (112) eta Udaltzaingoari (943 25 20 10) zein Jose Luis Etxebarriari, Arrasateko Udaleko Babes zibileko teknikariari (696 450 545).
- Larrialdi Burua eta bere ordezkoa ondoko taulan azaltzen direnak izango dira LAGAPEN HARTZAILEAK informatutakoaren arabera, eta jarduera irauten duen bitartean erraz aurkitzeko moduan egongo dira.

	Izen abizenak	DNI	Helbidea	Telefonoa
Larrialdi burua	KEPA ORMAETXEA MILIKUA	72.561.920-W	Hondarribia 17, B.	680 176 267
Ordezkoa	IGOR LETONA BITERI	72.447.649 H	Uribe auzoa 16 1-D	688 887 140.

- Jardueraren edukieraren arabera, LAGAPEN HARTZAILEAK 80 pertsonako larrialdi laguntzaile bat izendatu beharko du larrialdi kasuan aritzeko eta beti ere **gutxienez 4 lagun izendatuko ditu: 2 ebakuazio taldea osatuko dutenak eta beste 2 interbentzio taldea osatuko dutenak**. 4 pertsona hauek zein Larrialdi Buruak eta bere ordezkoak aurrez ezagutu beharko dute Larrialdietarako protokoloa jasotako fitxetan agertzen den arabera.

Arrasate, 2016ko abenduaren 14a

Sin. Maria Ubarretxena Cid  
Arrasateko Alkatea



Sin. Kepa Ormaetxea Milikua

ASKAPENA